

Baketiken ekarpena Euskadin bakegintzari eta bizikidetzari

Maidor Maraña

Baketik Fundazioko zuzendaria

2021

baketik

Egileari buruzko oharra

Gaur egun, gizarte-eraldaketa eta gatazken konponbidea giza eskubideetan oinarriturik lantzeko prozesuak sustatzeaz arduratzen den Baketik Fundazioa euskal erakundeko zuzendaria da. Kontsultore independentea den aldetik, sustapen-lana egiten du nazioarteko erakunde, tokian tokiko gobernu eta elkarteentzat, politika publikoetan giza eskubideak eta diskriminaziorik eza txerta ditzaten. Historian lizentziaduna da, eta kultura-eskubideetan espezializatuta dago: bere lanetan, ondarearen, eskubidezeharkakotasunaren, genero-parekidetasunaren eta gizarte-partaidetzaren arloetako politika publikoak ikertu ditu. Urteak eman zituen lanean nazioarteko zenbait erakundetan, hala nola UNESCOn, bai Parisko egoitzan eta bai Uruguain. UNESCOren Kultur Paisaiak eta Ondarea katedrako koordinatzaile eta ikertzaile izan da (Euskal Herriko Unibertsitatea), eta nabarmentzekoa da orobat UNESCO Etxean eta beste zenbait GKEtan egin duen lana. Irakaskuntzan ere jarduna da, eta argitalpen ugari ditu, hala nola *Cultura y Desarrollo. Evolución y perspectivas* (Kultura eta garapena. Bilakaera eta ikuspegiak, 2010), *Patrimonio y Derechos Humanos* (Ondarea eta giza eskubideak, 2015) eta *Cambio climático: Amenaza a los Derechos Humanos* (Klima-aldaketa, giza eskubideen aurkako mehatxu, 2020). Harremanetarako e-maila: m.marana@baketik.org

Laburpena

Euskadiko beste elkarte askorekin batera, giza eskubideen zoruan erroturiko bake- eta adiskidetze-prozesuak sustatzen dituzten eragile nagusietako bat da Baketik, eta azken hamarkadetan ezagutu dugun motibazio politikoko indarkeriaren ondorioei heltzeko programak bultzatzen ditu. 10 urte baino gehiago dira Baketikek, besteak beste, bakean erroturiko bizikidetzakultura berri bat sustatzeko udal-politiken diseinu-, babes- eta dinamizazio-zerbitzuak eskaintzen dituela. Programa horien bidez, Baketikek elkarlanean jardun du hainbat udalekin, sentsibilitate desberdineko jendeari laguntza emanez eta elkarrizketa-guneak eta dibulgazio-, partaidetza- eta heziketa-jarduerak bideratuz. Elkarrizketa politiko eta herritarrerako gune pluralak sustatzen ditu, haien bidez memoria- eta bizikidetzak-politika publiko eta inklusiboak mamitzeko.

Gako-hitzak: bakea, bizikidetzak, udal-politikak, partaidetza-prozesuak, giza eskubideak, elkarrizketa, biktimak

Baketik Fundazioa 2006. urtean sortu zen, gatazken azterketa eta konponbidea etikaren ikuspegitik landu, bakea sendotzeko baliabideak eman, gizartea adiskidetu eta gatazka suntsitzaileak prebenitzeko asmoz. Elkartearen izenak euskarazko bi kontzeptu bateratzen ditu: *bake* eta *etika*. Elkarte independentea da, ezein instituzio publiko nahiz pribaturekin lotura organikorik ez duena, eta bere lanaren eta dirulaguntzen bitartez lortzen du finantzaketa.

Hasieran, zentroaren kokalekua Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa) zegoen, eta Euskadin eta Nafarroan gizarte-eraldaketa eta bizikidetzaren bultzatzeko zerbitzuak, jarduerak eta ikastaroak eskaintzen zituen. Azken urteetan, Baketiken egitekoa zenbait lan-arlotan espezializatu da, baina betiere bakearen eta elkarrizketaren aldeko kulturaren sustapenean oinarriturik, eta gogotik aritu da lanean gatazka osteko berreraikuntza sozialerako prozesuetan, batez ere Gipuzkoan, udal mailan, motibazio politikoko indarkeriak gure lurraldean konpontzeke utzitako ondorio eta auzien inguruan lan eginez. Giza eskubideen inguruko nazioarteko zuzenbidearen printzipioetan ardaztuta eta printzipio horien defentsa irmoan oinarrituta egiten du lan Baketikek.

Horrenbestez, Euskadin izan diren indarkeria guztien kontra bakea eta bizikidetzaren defendatzeko aukera eman diguten ekimen eta prozesuak sustatu dituzten elkarte eta erakunde ugarietako bat da Baketik. Hala, gure inguruan giza eskubideen sustapenean diharduten elkarte eta instituzio ugariak eta are bakarka aritzen diren hamaika norbanakok martxan jarritako ekimenen esparruan sartzekoa da gure lana.

1. Baketiken ibilbidea

1.1. Lehen urteak

Elkarri elkarrizketaren eta akordioaren aldeko gizarte-mugimenduaren esperientziatik zetozen pertsonen eratu zuten Baketik Fundazioa 2006ko urrian¹. Hasieran, gatazka etikaren ikuspegitik eta errealitatea kritikoki aztertuz lantzen zituen zentro bat izan zen, eta ideia bat defendatzen zuen: aldaketa-prozesuak pertsona bakoitzak jarri behar zituela martxan. Gizarte-, bizimodu- eta bizikidetzaren ereduaren etengabeko krisi integralei zegokien aldetik, Baketikek “balio-nahasmendu” bat identifikatzen zuen (Baketik, 2012).

Gure errealitatean denok ezagutzen genituen gatazka-ereduaren lan-formula etikoei heltzeko gaikuntza, gogoeta-agiri eta prozesuak sustatu zituen gure elkarteak. Krisi estruktural horri aurre egiteko helburu etikora iristeko biderik egokiena “aldaketa prozesu gisa” ulertzea zelako ideian sakondu zuen Baketikek testuinguruaren bere analisi kritikoan (Baketik, 2012). Izan ere, “premiatzekoa eta garrantzi handikoa da gizarte- eta garapen-eredu berriak sortu eta bestelako bizimodu eta bizikidetzaren ereduak sustatzea. Aldaketa bat behar dugu, baina

¹ Elkarri buruzko informazio gehiago lortzeko, jo, modulu honetan bertan, Paul Rios Garaizarren testu honetara: “Los movimientos por la paz y el diálogo: Elkarri y Lokarri”.

ez soziala, politikoa edo ekonomikoa bakarrik, ez eta pertsonala edo puntuala bakarrik ere. Zentzu etikoa duen aldaketa-prozesu pertsonal eta sozial bat behar dugu” (Baketik, 2012).

Argi ikusten zen ez zegoela “formula magikorik”² maila pertsonal eta sozialean behar genuen aldaketa hura lortzeko, eta, beraz, prozesuetan zentratutako logika baten arabera egin behar zela lan, *Bizizikasi* pedagogian –hau da, bizipenen bidezko ikaskuntza– oinarriturik (Baketik, 2011a).

Hala, bada, Baketikek proposatutako lan-formulak bi printzipio zituen: batetik, testuingurua “erabateko itzaropenez” aintzat hartu beharra aldeztu zuen, horrek mundu hobea bat lortzen lagundu zezakeelakoan; eta, bestetik, errealitatearekin konprometitzearen garrantzia azpimarratzen zuen –aldaketa posible izateko baldintzak norberak sortu beharra, alegia– (Baketik, 2012).

Bere ibilbideko hasierako urteetako gaikuntza, prestakuntza eta hitzaldietan, Baketiken proposamen guztiek “giza duintasunaren etika” nabarmentzen zuten nagusiki, gizakia subjektu erabakimendun, eskubidedun eta erantzukizundun gisa ulerturik maila indibidualean, eta, aldi berean, “inori etiketarik ez jartzea eta justiziaren eraikuntza gutariko bakoitzak duen erantzukizun-kuota asumitzea” oinarri duen etika bat aldeztuz gizabanakoon eta gizartearen arteko loturei dagokienez (Baketik, 2012). Labur esanda, gutako bakoitzari eragiten digun errealitatearen gain ditugun ardurak nor bere gain hartzea eskatzen zuen Baketikek hasierako urte haietan.

Printzipio eta metodologia horietan oinarriturik, Baketikek oso programa adierazgarriak sustatu zituen hainbat arlotan:

- Prestakuntzaren arloan, ikastaro ugari antolatu zituen urteetan eraldaketa-prozesuak formula etikoen bidez martxan jartzeko eta gatazken konponbideak gizakia eta haren duintasuna erdigunean jarrita lantzeko mekanismoak eskuratzeko³. Hasierako urteetan, 30 mila ikaslek eta helduk parte hartu zuten prestakuntza-ekimen horietakoren batean.
- Beste ekimen garrantzitsu bat *Izan* proposamena izan zen, “pertsona gisa hezi” beharra ardatz hartzen zuen ekimena. Haren edukia zortzi ikas-eremutan biltzen zen, eta pedagogia etiko bat eskaintzen zuen elkarrekin hobeto bizi eta hezteko, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza helburu harturik (Baketik, 2014)⁴.
- Prestakuntzaren arloan, baina motibazio politikoko indarkeriaren ondorioetan zentratu zehazki, Baketikek *Bihotzetik* modulua sortu zuen, euskal kasuan giza eskubideak urratu zitzaizkien biktimen gaiari buruzko lan-baliabideak eskuratzeko gida bat, gai hori eskoletan lantzea izugarri zaila baitzen urte haietan. Modulu hori ikastetxeetan lantzearen garrantzia azpimarratzen zuen Baketikek, eta hori hiru

2 <https://www.baketik.org/web/que-es-baketik.php?idioma=es>

3 Ikastaro-eskaintza ikusteko, jo hona:

<https://www.baketik.org/web/data/documentos/cursos3cas.pdf>

4 Proposamena hemen ikus daiteke: <https://baketik.org/wp-content/uploads/2023/10/Izan-Aurkezpen-koaderno-1.pdf>

arrazoi nagusirengatik: (1) ikasleak pertsona gisa hezten zituelako; (2) mundu hobe bat lortzen laguntzen zuelako; eta (3) giza eskubideen urraketan biktimenganako elkartasuna bultzatzen zuelako (Baketik, 2016)⁵.

- Pedagogiaren arloan, halaber, Baketikek antzerki-esparru handi bat sustatzeko lanari ekin zion 2007. urtean –eta horretan aitzindari izan zen Euskadin–, *Antzerki-foruma*, eta antzerki mota horretan ohikoa den metodologia parte-hartzailean oinarriturik, gune horren bidez era guztietako indarkeriak landu dira urteen joanean, denetariko publikoa erakarrita. Zinemak gatazken eta etikaren arloetan duen garrantzia ere azpimarratu dute beste ekimen pedagogiko batzuek.
- Elkartasuna eta konpromisoa lantzen eta sustatzen dituen *Izeba* programa ere nabarmendu nahi dugu. Arrazoi askorengatik beren familiengandik bananduta eta instituzioen tutoretzapean (Gipuzkoako Foru Aldundiarenean, zehatz esatera) bizi diren adin txikikoen *izeba* edo *osaba* gisa jokatzeko eta haur eta gazte horiek harreran hartzea onartzen dute boluntario-sare baten parte diren zenbait lagunek. Programak 10 urteko bidea egin du dagoeneko, eta haren helburua tutoretzapean dauden adin txikikoen bizi-kalitatea hobetzea da, erreferentziazko familia baten laguntzaz pertsona gisa garatu daitezkeen⁶.
- Motibazio politikoko indarkeriaren inguruko bakegintzaren eta bizikidetzaren arloetan ere, Baketiken lana aitzindaria izan da Gipuzkoan; izan ere, 2010-2011 aldiak geroztik, gure elkarteak toki-esparruko prozesuak sustatzeari ekin zion zenbait udalerritan, eta lan-mahaiak, prestakuntza-saioak eta ekimen publikoak antolatuz zituen, indarkeriaren errealitate eta ondorio gordinak jasan zituzten Gipuzkoako herri batzuetan oso lan-ildo adierazgarriak martxan jarri zituztenak.
- Halaber, ikasitakoa munduko beste eskualde batzuekin partekatze aldera, Baketikek zenbait proiektu jarri zituen martxan Afrikan han-hemenka, eta Latinoamerikan ere esku hartu zuen, puntualki bada ere.

1.2. Baketik gaur egun

Orain arte aipatutako ekimen guztien lekukoa jasota, Baketikek bost lan-ildo sustatzen ditu gaur egun, honela artikulatuta:

- Bakea eta bizikidetzaren indarkeria politikoaren eta bizikidetzaren prozesuen arloetako lana; besteak beste: materialak sortzen, zenbait prozesutan sustapen-lana egiten eta laguntza ematen (*Adi-adian* moduluan, adibidez, indarkeria politikoaren biktimen parte-hartzea bultzatzen da ikastetxeetan antolatzen diren jardueretan), eta batez ere Gipuzkoako udal mailako bake- eta bizikidetzaren prozesuetan esku hartzen.

5 Modulua hemen kontsulta daiteke <https://baketik.org/wp-content/uploads/2024/03/Baketik-Bihotzetik-2017-eusk.pdf>

6 *Izeba* programarekin zerikusia duten bideoak hemen ikus daitezke: <https://www.youtube.com/watch?v=L5AtFBVqX30>

- Elkartasuna: gizarte-inklusioko ekimenak eta mentoretza, batez ere *Izeba* programaren bidez.
- Prestakuntza eta heziketa: antzerki-foruma, gatazken konponbiderako ikastaroak, zinema-saioak eta era askotako sentsibilizazio-jarduerak.
- Gizarte-eraldaketa eta ezagutza: askotariko errealitate sozialen sistematizazioa.
- Bitartekaritza: gure gizartean sortzen diren gatazken konponbiderako metodologiak garatzeko eta errazteko lana.

Azken urteetan, Baketikek berretsi egin du giza eskubideen arloan lan egiten jarraitzeko bere konpromisoa, batez ere bi esparrutan: batetik, udal mailako politikak eta ekimenak martxan jartzeko prozesuetan; eta, bestetik, hezkuntzan, Euskadin izan dugun indarkeria politikoaren ondorioekin lotutako ekimenetan.

Era berean, garrantzitsua da ulertzea gatazken inguruan egindako lanak oso oinarri zabala ematen diola Baketiki lanean jarraitzeko: 15 urte hauetan, lan-arlo eta -esparru askotan aritu gara (motibazio politikoko indarkeria, adin txikiko migratzaileen bazterketa, *bullyinga...*), eta horrek, sarritan gure abiapuntuko posizioaz gogoeta egitera behartzen gaituen arren, beti bideratzen baitu gure lanaren oinarriak giza eskubideen, elkartasunaren eta etikaren ikuspegitik ulertzerara. Hala, Baketikek gaur egun egiten duen lana definitzen hasita, esan liteke bere lana *zubi-lana* egitea dela⁷.

2. Bakea eta bizikidetzaren tokian tokikotik indar eginez Gipuzkoan

Baketikek 15 urte hauetan egindako bidean, Euskadik hamarkadetan bizi izan duen motibazio politikoko gatazkaren ondorioen errealitatean sakondu dugu batez ere, gurean giza eskubideen urraketa larri ugari izan baitira. Hezkuntza-modulu eta -esperientziak sortzeaz gainera, toki-esparruan gatazkaren ondorioak lantzen zirela eta artean konpontzeke zeuden arazoei giza eskubideetan oinarriturik erantzuten zitzaiela bermatzen zuten lanak sustatu zituen Baketikek –beste elkarte eta norbanako batzuen antzera–.

Zergatik lan egin toki-esparruan? Gure ustez, tokian tokiko esparru horretan nabaritzen direlako bereziki edozein gatazkaren ondorioak. Edozein agiri edo akordio ofizialek gatazka biolento bati amaiera eman baino askoz denbora lehenago, herri eta hiri bakoitzeko biztanleak hasita egoten dira iraganeko tirabiren ondorioei aurre egiten. Ondorio horiek pilatu eta pilatu egiten dira urteetan herri eta hirietako kale eta plazetan, herrikideak bertan mugitu izan diren edo elkarrekin komunikatu izan diren edo elkarri begiratu izan dioten moduan. Hori dela eta, bizi izandako gatazka hori ezkututzen ez duten, kalte eta ondorioen aitorpena egiteko balio duten eta gatazka suntsitzaileak prebenitzeko mekanismoak sortzen dituzten pausoak eman behar ditugu hala esparru politikoan nola esparru sozialean.

⁷ Euskaraz, bi pertsona edo gauza desberdin edo elkarren aurkakoak hurbiltzea eta harremanetan jartzea da *zubi-lana* egitea.

Horretan udal mailako gobernuek garrantzi handia dutela iritzirik, Baketikek bere hasierako urteetan martxan jarritako jarduerak ernatzen dute gaur egun egiten dugun lana.

2.1. Biktimen ikusgaitasuna eta partaidetza eta kulturaren eta artearen rola bereziki aintzat hartzea

Lan honetan udal-esparruan egindakoa sakon azaltzen hasi baino lehen, hemen aurkeztuko ditugun udal mailako prozesuez gainera, argi esan nahi dugu Baketikek indarkeriaren biktimen ikusgaitasun eta partaidetza bultzatzearen alde egiten duela apustu, baldin eta hori bada biktimek nahi dutena. Euskadiko beste elkarte batzuek bezala, Baketikek ere Eusko Jaurlaritzaren *Adi-adian* programa inplementatzen du, motibazio politikoko indarkeriaren biktimei Euskadiko ikastetxeetako zenbait jardueratan parte hartzeko bidea ematen dien ekimena, "konpromisoaren pedagogia" bultzatzeko asmoz (Eusko Jaurlaritza, 2017). Gure elkarteak beti defendatu du transmisioaren garrantzia: "Indarkeriazko iraganaren gertakizunen transmisioa batez ere etxeetan gertatzen da, gertatzen denean" (Baketik, 2019a). Hezkuntza-komunitatean ez dago adostasunik "zer, nola eta noiz transmititu behar den finkatzeko orduan. Instituzioetan ere talkak ohikoak dira. Izan ere, anitzak dira iraganaren kontakizunak, eta, askotan, bateraezin bezala epaitzen dira" (Baketik, 2019a).

Eskoletara joaten diren biktimen lekukotasun horien bidez, ikasleek "gertakizunen zatitxo bat" jasotzen dute; oso esperientzia baliagarria da, "iraganaz hitz egiteko, galdetzeko, ikertzen jarraitzeko atea" izaten baita askotan (Baketik, 2019a). Era berean, indarkeriaren biktimei beren lekukotasunean laguntzen emandako urte hauek bi irakaspen ere utzi dizkigute: batetik, ikasleek oso enpatia-prozesu adierazgarriak jartzen dituztela martxan eskubide-urraketen biktimekin, eta, bestetik, gune horiek erabakigarriak gertatu zaizkiela beren bizipenen berri eman eta transmisioa bultzatu nahi izan duten zenbait biktimari. Irakasleen partaidetza ere ezinbestekoa izan da programaren arrakastarako.

Nabarmendu beharreko beste esperientzia bat *Adiorik gabe/Sin adiós*⁸ da, berez Donostia 2016 Kultur Hiriburutzak sustatutako ekimena, gerora Baketikek garatu zuena "terrorismoaren eta motibazio politikoko beste indarkeria batzuen biktimak" aitortzeko, "lengoaia artistikoa eta prozesu-ikuspegia erabiliz. Lau zuzendari artistikok hainbat hilabetetan zehar hiriko hiru biktimen senide eta hurkoekin egindako enpatia, aitortza eta sormen prozesu baten emaitza izan zen" (Baketik, 2019b).

Hala, hitzaren bidez beren lekukotasunen berri ematen diguten biktimen inguruko beste ekimen batzuetan ez bezala, programa honek arteaz baliaturik estutu nahi zituen sufrimenduarekiko loturak: "Beren bizitzak bidegabeki ukatu zizkieten pertsona horiek gogoratu eta humanizatzeko ekitaldia eta topagunea da. Gizatasunez betetako memoria

8 Baketik (2019b). *Memoria artelan. "Adiorik gabe" esperientzian sakontzeko gida pedagogikoa*. Hemen eskuragarri: <https://baketik.org/memoria-artelan-adiorik-gabe-esperientzian-sakontzeko-gida-pedagogikoa-20190920/>

errestauratiboa lantzeko ariketa kolektiboa. Pertsona horien bizitzetara itzultzeko saiakera bat, beren hurbilekoenen oroitzapen eta testigantzak proposamen artistiko bilakatu, partekatuz eta sentituz. Arteak bizitzen laguntzen digu, bai bizitza sortuz eta bai behatuz. Pentsarazi egiten digu, plazera sortzen digu, edo mina, edo emozio-sorta izugarri zabala. Bizitzen laguntzen digu. Artea behar dugu, oxigenoa behar dugun bezalatsu” (Baketik, 2019b).



1. irudia- *Adiorik gabe/Sin adiós* ekimenaren kartela.

Baketik en, beste elkarte askotan bezala, ezinbestekotzat jotzen dugu artearen ahalaz baliatzea gatazka osteko prozesuetan: “Adierazten zaila den hori adierazteko, hizkuntza analitiko edo arrazionalak baino hobeto laguntzen digu, askotan, hizkuntza estetiko eta sinbolikoak. Kontaezin bezala bizi ditugun oroitzapen mingarri eta nahasi horien aurrean, zentzua bilatu eta narratibak sortzeko modu bat da prozesu sortzailea” (Baketik, 2019c).

Sormenak eta arteak bizipen pertsonal bat eskaintzen digute, hizkuntza artistikoaren bidez barne-emozioak adierazteko ahala, sarritan zaila izaten baita emozio horiek hitzekin adieraztea. Une pertsonal eta aukera indibidual horretaz harago, baina, mina modu kolektiboan lantzeko aukera ere ematen dute maila sozialean, eta adiskidetzarako baldintzak sortzen dituzte. Hala, kulturak gizarte mailako gogoeta sustatu dezake –eta sustatu behar du– (Baketik, 2021).

Gaur egun, gizarte etengabe berreraikitze prozesu betean gauden honetan, “kulturak eta arteak, bizikidetzari eta adiskidetzari kultura berri baterako bidelagun izan behar dute, formula berriak eraikitze eta, bakarka nahiz taldean, bestela esploratzeko aukera izateko” (Baketik, 2021). Arteak bizikidetzari eraikitze baliabide gisa garrantzi handia duela uste dugu; izan ere, “artelanak elementu paregabea eskaintzen digu beldur sozialei heltzeko eta dinamika berriak sortzeko espazio eta une egokiak eratzeko. Baina, aldi berean, ihes egin

behar dugu garapen artistikoa bere osotasunean eragozten duten utilitarismoetatik; aitzitik, bermatu egin behar dugu sorkuntza-prozesuek ez dutela birbiktimitzatzen, ez dutela indarkeriaren justifikazioa sustatzen eta ez direla giza eskubideekin bateraezinak” (Baketik, 2021).



2. irudia - Giza eskubideen urraketak pairatu dituzten Sandra Carrasco eta Olatz Etxabe elkarri beren esperientziaren berri ematen, Baketikek (Maialen Lizarralde) Sorluzen bideratutako ekitaldi batean. Argazkia: *Plaentxia*.

2.2. Udalei bakegintzaren eta bizikidetzaren arloetan emandako babesaren hasiera

2010 aldera, Euskadin oraindik ere terrorismoaren eta beste indarkeria mota batzuen tentsiopean bizi ginenean baina zenbait aldaketak etapa berri baten zantzuak adierazten zituztela ikusten genuenean, motibazio politikoko indarkeriaren ostean gizartea berreraikitzen hasteko udal mailako ekimenak eta prozesuak sustatzen hasi zen Baketik Euskadiko zenbait udalerritan, batez ere Gipuzkoan.

Proposamen haien hastapenak ez ziren errazak izan: artean ere gure gizarteak eta gure instituzioek zailtasunak zituzten bakegintzan eta bizikidetzan lan egin eta berreraikuntzarako oinarriak planteatzeko, eta udalerriek, aurrea hartu, eta zenbait ekimen proposatzen hasi behar izan zuten.

Baketikek adiskidetzarako udal mailako aholkularitza-proposamen zehatz bat egin zuen; haren arabera, “bizikidetzaren etorkizunerako beharrezkoa eta lehentasunezkoa da” udalerrietan “adiskidetze-politikak martxan jartzen ahalegintzea modu jarraituan”, ahalegin hori zelakoan “ziur asko, bizikidetzaren sustatzeko baliabiderik aproposena, gertueneko esparruan jasaten baitira bizikidetzaren urraketak eta hortxe eraberritu behar baita bizikidetzaren urratua” (Baketik, 2011b).

Baketik urte haietan zenbait herritan hasitako bide horrek ederki erakutsi zuen udal mailako bakegintza- eta bizikidetzalana “prozesu (...) luze, konplexu eta zaila” gerta zitekeela (Baketik, 2011b). Hasierako estrategia hark 3 xede nagusi izan zituen –gaur egun ere hirurei eusten diegu–: ideiak adostu, jarrerak prestatu eta urrats zehatzak sustatu.

Baketik aholkularitza eman zien zenbait udal eta hautetsiri, eta eskoletarako prestakuntza-jarduerak eta kultur-gune eta antzekoetarako dibulgazio-proposamenak prestatu zituen. Hasierako ekimen haien poderioz, ideia giltzarri bat eratu zen: udal mailako esparru politikoetan adostasunak lortuz lan egin beharra zegoela eta pauso txiki baina irmoek garrantzi handia zutela, elkarrizketarako eta adiskidetzarako gune sozialak bideratzeari begira.



3. irudia - Urnietan egitekoak ziren jardunaldi batzuen kartela. Baketik 2010 aldera udal mailan lan egiten hasi zen Gipuzkoako herrietako bat izan zen Urnieta.

2.3. Udal mailako errazte-lana: prozesuaren gakoak?

Baketik bezala, beste pertsona eta erakunde batzuek ere bultzatu zituzten tokian tokiko agintarien garrantzia nabarmentzen zituzten ekimenak, bai eta instituzio publikoek ere, eta,

9 Udal-prozesuetan Baketikeko erraztaile gisa aritutako Aintzane Gamizen eta Maialen Lizarralderen laguntza jaso dugu testu hau idazteko.

hala, sentsibilizazio-ekintzak eta herritarrentzako topaguneak jarri ziren martxan udalerrri bakoitzean. Azken hamarkadan, udalen bultzadari, zenbait erakunderen¹⁰ errazte-lanari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zenbait programaren babesari (gaur egun, *Bizikidetzak Lantzen* ekimenarenari) eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzei esker, proposamen horiek guztiak indarra hartuz eta zabalduz joan dira Gipuzkoan.

Hortaz, "eragile anitzeko" logika gisa ernatu dira prozesu horiek denboraren joanean, eta udal eta eskualde mailako instituzioak ibili dira buru den-denetan, baina udalerriek berek eskatuta ere jarri dira martxan batzuetan. Tartean ibili garen elkarteak errazte-lanaren logika erabili dugu, languneak sortuz, prozesuko benetako protagonistek (tokian tokiko agintariek eta herritar-taldeek) beren helburuak non bete izan zezaten.

Baketik Gipuzkoako 9 udalerritan errazten ditu prozesuak gaur egun¹¹, eta udal mailako bizikidetzak eta memoria-politikak garatzen laguntzen die udalei; politika horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Bizikidetzak Lantzen* programaren bidez jasotzen dute babes ekonomikoa¹². Baketik gune horiek ulertzeko duen modua aintzat hartuta, foro horien xedeen artean aipatzekoak dira elkarrekin hitz egitea, bestearen sufrimendua onartzea eta gutxiengo adostasunetara iristea biktimen, memoriaren eta bizikidetzaren alorretako ekimenak denok batera martxan jartzeko, betiere giza eskubideak eta etika oinarritzat hartuta.

Bizikidetzak Lantzen programak 6 ekintza-esparru identifikatzen ditu, hala nola, nabarmenena aipatzearen, udal mailako esparru politikoetako foroen sorrera, udaletan ordezkariak duten alderdi politikoen arteko akordioak sustatzeko bakegintzaren eta bizikidetzaren alorretan. Gaur egun prozesu horretan errazte-lanetan aritzen garen Gipuzkoako 9 udalerrietako bakoitzean, ordezkari politikoen arteko elkarrizketarako gune finko bat errazten dugu.

Bakegintzaren eta bizikidetzaren alorretan herritarrentzako guneak sortzeko eta martxan jartzeko pausoa ere eman dute zenbait udalerririk; boluntario-talde finko batek osatzen du gune horietako bakoitza, eta, beste batzuen artean, Baketik egin ditu errazte-lanak. Era berean, gero eta udalerrri gehiago daude Gipuzkoan gaur egun bakegintzarekin eta bizikidetzarekin lotuta hezkuntza-eskaintzaren bat sustatzen dutenak edo gai horiei buruzko kultura- edo gizarte-jarduera publikoak antolatzen dituztenak.

Lan honetan, proposamen hori toki bakoitzeko errealitatera egokitzearen garrantzia aitortu eta azpimarratu nahi dugu: herri eta lan-mahai bakoitzak hautatu behar ditu bere erronkei hobekien aurre egiteko baliabideak, baina alderdiek mahai politiko berean parte hartu

10 Gaur egun, Baketik, Bakeola eta Berbari Lagun elkarteek egiten dituzte errazte-lan horiek Gipuzkoan, baina beste elkarte batzuk ere aritu ziren horretan lehenago, hala nola Lokarri.

11 Beste elkarte batzuen lana ere aintzat hartuta, gaur egun programa hori martxan jarria duten hogeiren bat udalerrri daude Gipuzkoan.

12

<https://www.gipuzkoa.eus/documents/2456908/2457336/BIZIKIDETZA+LANTZEN+EUS/bbdddde-a-a940-9050-7902-6926382551d9>

behar dutela kontuan hartuta betiere, baliabide hori guztiz ezinbestekoa baita, Euskadin ezagutu dugun indarkeriaren ezaugarriak aintzat hartuta, sentsibilitate politiko desberdinen arteko kultura demokratiko bat sortzeko. Motibazio politikoko indarkeriak gure udalerrietako jardun politikoa kamustu du, eta kalte egin die hala adierazpen-askatasunari nola ekintza politiko demokratikoari. Beraz, gaur egun ere funts-funtsezkoa da udalerrri bakoitzean ordezkariak duten alderdi politikoen arteko adostasuna sustatzea, eta haien arteko elkarrizketa libre eta errespetuzkoa izan dadila bermatzea.

Udalerririk berek erabaki dezakete lan-mahai politiko horien iraupena: udalerrri batzuetan orain dela hamar urte baino gehiago hasi ziren lanean; beste batzuetan, aldiz, oraintxe ekin diete lanei; batzuek amaitutzat jo dituzte beren lan-mahaiak; beste batzuen iritziz, berriz, oraindik bide luzea dute egiteko.

Programaren 2018ko ebaluazioan (GFA, 2018b) parte hartu zuten pertsona gehienak (% 77,5) bat etorri ziren onartzean mahai politikoa baliabide ona izan zela beren herrietan bizikidetzara lantzeko. Onartu zuten, halaber, urratu beharreko bidea luze bezain malkartsua dela oraindik, baina elkarrizketa-baliabide horren garrantzia azpimarratuz betiere. Bakegintzari eta bizikidetzari buruzko mahai politiko horrek, izan ere, gai zail eta mingarriak ohiko udal formulez bestelako guneetan lantzeko aukera ematen du.

Talde politiko horiek landutako gaien artean, hauek aipatu behar dira: partaideek elkarrekin errespetuz jokatu beharra, autonomia pertsonala, zintzotasuna, elkar ezagutzeko lan egin beharra, ulerkuntza eta onarpena, enpatia, konfidentzialtasuna eta diskrezioa, adostasunak eta akordiorik eza kudeatzeko modua. Garrantzizkoa da ulertzea bakearen eta bizikidetzaren inguruko mahai horiek ez dutela funtzionatzen hauteskundeetako logika ordezkariaren arabera, tartean dauden alderdi guztiek parte hartzeko baldintza berberak baitituzte ordezkari kopuruari eta erabakiak hartzeko moduari dagokienez: mahaien helburua elkarlana bultzatzea eta adostasunak lortzea da.

Ondo ulertu behar da, orobat, mahai horiek prozesuaren ideian oinarritzen dutela beren lana, hau da, epe laburreko emaitzen logikari jarraituz ez baizik eta topagune eta elkargune izanda eratzen direla talde horiek. Prozesuak mamitzen du taldea, eta taldea prozesu horretan aurrera eginez eratzen eta eraikitzen da. Aldi berean, bakegintzaren eta bizikidetzaren inguruko mahai politiko horiek guztiek izaten dituzte une goren eta krisialdiak: bakearen eraikuntza (*peacebuilding* edo *bakegintza*) bide bat da, etenik ez duen lan bat. Aurrerakada eta atzerakada horiek berezkoak zaizkio Gipuzkoako udalerrri horietan sustatzen den errealitate mota horri.

Ekimenen arrakastari dagokienez, azken urteetan ikasitako gauzetako bat da politikarien lidergoak eta parte-hartzeak sekulako garrantzia dutela, ideologiak eta alderdiak albo batera utzita. Udal bakoitzaren kolore politikoa gorabehera, mahai politikoen aurrera egin zuten udalerrri batzuetan, baina beste batzuetan ez. Udalerrri berean ere, baldin eta hauteskundeengatik edo beste edozergatik hautetsiak aldatzen badituzte, horrek prozesua itzulipurdika dezake: halako aldatetarako gertatzen direnean, taldea ez da beti gai izaten aurrera jarraitzeko formulak aurkitzeko; kontrakoa ere gerta daiteke, ordea, talde batean jende berria sartzeak dinamismo- eta konfiantza-giroa hobetzen laguntzen baitu batzuetan.

Izan ere, halakoetan parte hartzen duena ez da “alderdi politikoaren ordezkaria”, pertsona baizik. Horrek guztiak ederki erakusten digu zeinen garrantzitsua den pertsona bakoitza proiektuarekin konprometitzea eta modu zintzo eta engaiatuan parte hartzea.



4. irudia - Gipuzkoako zenbait udalerritako alkateak, Argitzek antolatutako jardunaldi batean (2021), beren esperientzien berri elkarri ematen. Argazkia: Mainer Maraña.

Aipatu beharra dago, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak kanpoko profesional bat proposatzen eta eskaintzen duela *Bizikidetzaren* programaren barruan talde politiko bakoitzari laguntzeko, eta udalerririk berak hautatzen duela profesional hori. Baliagarritzat ez ezik, ezinbestekotzat ere jo dute programan parte hartu dutenek kanpoko profesional horren errazte-lana eta laguntasuna. Zalantzarik gabe, esperientzia hau eraldatzailea da maila pertsonalean, eta era honetako prozesuetan parte hartzen duen inor ez du hotzapel uzten.

Bestalde, udalerririk askotan sortu dituzte herritarren elkarrizketa-taldeak, iraganean bizi izandako indarkeriak beren bizitzan utzitako arrastoaz gogoeta egitea eta tokian tokiko berreraikuntza sozialerako ekintzak martxan jartzea helburu hartuta. Interesa duten herritar guztiek parte har dezakete talde horietan, hala nahi badute. Taldeetako batzuk oso aktiboak dira, eta bide luzea egin dute beren herrietako biktimekin elkartzeko guneak sortzeko, eta erakusketak eta bestelako kultura-ekimenak ere antolatzen dituzte. Baketik eta beste

elkarte batzuek laguntza profesionala ematen diete herritarren topagune horiei, baina taldeak berak markatzen du bere agenda eta taldeak erabakitzen zer urrats egin nahi dituen (eztabaidagaiak, topaketa-formulak, etab.), eta batzuk oso aktiboak dira.

Kolektibo horien bilakaerari buruzko 2018ko ebaluazioaren arabera, arazoak eta krisiak gorabehera, udalerrri bakoitzeko herritar-taldeek bizi-bizirik eta martxan jarraitzen dute oro har: talde horietako batzuek argi dute, prozesuaren joanean talde gisa sortutako arazoei dagokienez, garrantzi handia duela denbora nahikoa eskaintzea auzi zailenen konponbideak bilatzeari eta bidean sortutako konplikazioak lantzeari. Foroetan parte hartzen dutenen iritziz, halako prozesuak zailak izaten dira, baina aberasgarriak.



5. irudia - Lasarte-Oriako foroan parte hartu zuten herritarretako batzuk (2020). Argazkia: Txintxarri.



6. irudia - Beasaingo herritar-taldearen ekimena (2017). Argazkia: *Goierriko Hitza*.

Orobat adierazi nahi dugu udal-prozesu hauetan garrantzitsua dela giza eskubideak urratu dizkieten eta prozesuetan parte hartu, lekukotasuna eman eta gogoeta egin nahi duten biktimenzako lan- eta topaketa-formulak identifikatzea eta ahalbidetzea. Hori dela eta, bertako eta beste herrietako biktimak erakarri nahi izaten dira bai mahai politikoetara, bai herritar-taldeetara eta bai kultura-ekimenetara.

3. Ondorioak

Hamarkadatan terrorismoa, indarkeria, giza eskubideen urraketak, zatiketak eta tirabirak jasan ondoren, horrek konplexutasun handiko auziak utzi zituen zintzilik Gipuzkoan, hala nola biktimen premiei eta eskubideei erantzun bat eman eta iraganaren memoria kudeatu beharra, gizarte-bizikidetzaz, espetxe-politika, printzipio demokratikoetan oinarritutako hezkuntza... Bake iraunkorra eta gizartean tinko errotutako kohesioa lortzeko, baina, pertsonengandik gertueneko instituzioek ere –tokian tokiko udal-gobernuek– beren aletxoak jarri behar dute nahitaez.

Baketik tokian tokiko eremu horretan jardutearen alde egiten du apustu, baina beste maila bateko politikak ere sustatzen ditu aldi berean, halakoek egiaren, justiziaren eta

erreparazioaren arloetan aurrerapausoak emateko aukera ematen baitute, indarkeriaren biktimek beren aniztasunean nahi dutena errespetatzen duten formulak bultzatuz. Nazioartean inspiratzaile gertatzen diren esperientzia guztiak ezagutu behar ditugu, eta lurralde eta udalerrri bakoitzeko berariazko ezaugarri zehatzen arabera egokitu, halakoetan konpromiso argiz parte hartzen dutenek defendatu eta adosteko aproposak izan daitezten.

Gaur egun gobernu-programen egituraren parte ere badiren gune horiek "bizipenetatik" sortuak dira, eta indarkeriaren ondorioak gainditzeko zerbait egin behar delako ideia dute akuilu. Prozesu horien asmoa bereizten gaituena albo batera uztea eta batzen gaituena ardaztat hartzea da, horren bidez bizikidetz-politika eta -formula adostuak eraikitzeko.

Ez daukagu ahazterik ekimen horiek "eragile anitzeko lanean" oinarritzen direla, eta, halakoetan, bai tokian tokiko agintariak, bai eskualde mailako gobernuek eta bai herritarrek beren eginkizuna dutela. Baketikek eta antzeko erakundeek egiten duten errazte-lanak garrantzi handia du prozesua babesteko, baina elkarrizketa-mahai politiko eta herritarrean parte hartzen dutenak izaten dira beti protagonistak, eta haiek bermatzen dute egitasmoaren arrakasta.

Baketikek eta beste elkarte batzuek prozesu hauek erraztu dituzten hamarkada honetan oso bide adierazgarria urratu dugu, baina halako prozesuen inguruko zirkunstantziak argi eta garbi aldatu dira gaur egun: bakea sendotu egin da gurean, eta hori errealitate bat da, baina, bizikidetzari dagokion aldetik, geldialdi-zantzu arriskutsuak ere sumatzen dira; gainera, gure arteko desadostasun eta gatasketan bortizki jokatzeko jarraitzen dugu sarritan. Bakearen, bizikidetzaren eta formula demokratikoen aldeko lanak esfortzu handia eskatzen du: era horretako prozesuak dinamikoak izaten dira, eta, aurrera egin ahala, premia ugari sortzen dira bidean. Hala eta guztiz ere, ez dugu beti argi ikusten zein diren hurrena egin behar ditugun urratsak, eta, alde horretatik, ezinbestekoa da, baita funts-funtsezkoa ere, bizikidetz bere horretan lantzeko prozesua bera defendatzea.

Bibliografia eta agiriak

- Baketik (2011). *Berrikuntzaren etika baterako oinarriak. Bizirikasi pedagogia*. Arantzazu: Baketik. Hemen eskuragarri: <https://www.baketik.org/edukiak/argitalpenak/basesparaunaeticacas.pdf>
- Baketik (2011b). *Propuesta específica de asesoramiento para la contribución municipal a la reconciliación*. Tolosa: Baketik. Hemen eskuragarri: <http://www.baketik.org/phocadownload/aytos.pdf>
- Baketik (2012). *El efecto Dinamo*. Tolosa: Baketik. Hemen eskuragarri: <https://www.baketik.org/web/data/descargas/dinamo.pdf>
- Baketik (2014). *Izan proposamena. Pertsona izaten hezteko zortzi ikaskuntza*. Tolosa: Baketik. Hemen eskuragarri: https://issuu.com/baketik/docs/izan_proiektua_eus
- Baketik (2016). *Módulo didáctico Bihotzetik. Propuesta para la solidaridad en la escuela con las víctimas de violaciones de derechos humanos en el caso vasco*. Tolosa: Baketik. Hemen eskuragarri: <https://www.baketik.org/web/data/documentos/BaketikBihotzetik2017cas.pdf>
- Baketik (2019b). *Gertatutakoaren transmisioa (III). Nork transmititu behar du?* Hemen eskuragarri: <https://baketik.org/gertatutakoaren-transmisioa-iii-nork-transmititu-behar-du-20190415/>
- Baketik (2019c). *Memoria artelan. Adiorik gabe esperientzian sakontzeko gida pedagogikoa* materialari buruzko webgunea. Hemen eskuragarri: <https://baketik.org/adiorik-gabe-20190705/>
- Baketik (2019). *Memoria artelan. Adiorik gabe esperientzian sakontzeko gida pedagogikoa*. Hemen eskuragarri: <https://baketik.org/memoria-artelan-adiorik-gabe-esperientzian-sakontzeko-gida-pedagogikoa-20190920/>
- Baketik (2021). «Artea eta sormena, gogoeta egiteko», in *Bizikidetzaren eta adiskidetzaren kultura berri baterako 2021 indargunea*. Hemen eskuragarri: <https://baketik.org/imagenes/Indargunea%202021.pdf>
- Eusko Jaurlaritzaren (2017). *Adi-adian hezkuntza-modulua*. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051412&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2018). *Bizikidetzaren Lantzen. Bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen udal politikak sustatzeko foru plana 2018-1*. Hemen eskuragarri: <https://www.gipuzkoa.eus/documents/2456908/2457336/BIZIKIDETZA+LANNTZEN+EUS/bbddddea-a940-9050-7902-6926382551d9>
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2018). *Bizikidetzaren Lantzen. Conclusiones del proceso de reflexión*.

Beste erreferentzia batzuk

Baketik (2021) - webgunea: www.baketik.org

Baketik (2016) - Izeba Istorioak / Historias de Izeba. Bideoak hemen eskuragarri:

<https://www.youtube.com/watch?v=L5AtFBVqX30>

Baketik (2019). *Adiorik gabe* ekimenari buruzko bideoa. Hemen eskuragarri:

<https://youtu.be/2BS94bhZfs>

Bizikidetzaren Landuz - Tejiendo compromiso (2021). Foro Sozialak antolatutako saioa, Baketik eta bakegintzaren eta bizikidetzaren alorreko beste elkarte batzuk bertan daudela. Bideoa hemen eskuragarri:

<https://www.youtube.com/watch?v=ul9-GStlduk>

Prentsa-artikuluak

Beasaingo Herritarren Bizikidetzaren Taldeak 101 beasaindarren atxikimendua jaso du (2017-11-03), *Goierriko Hitza*: <https://goierri.hitza.eus/2017/11/03/beasaingo-herritarren-bizikidetzaren-taldeak-101-beasaindarren-atxikimendua-jaso-du/>

Gatazkak kudeatu eta konpontzeko, desberdinen arteko elkarrizketaren garrantzia azpimarratu zuten, *Plaentzia* (2018-05-16):

<https://plaentzia.eus/soraluze/1526480765587-gatazkak-kudeatu-eta-konpontzeko-orduan-desberdinen-arte-ko-elkarrizketaren-garrantzia-azpimarratu-zuten>

Sukaldean, zauriak ixteko ahaleginetan, *Txintxarri* (2020-1-31):

<https://txintxarri.eus/lasarte-oria/1580459430065-sukaldean-ari-dira-lasarte-oriako-zauriak-ixteko-ahaleginetan>

Samina berbera da guztientzat, *Plaentzia* (2020-11-11):

<https://plaentzia.eus/soraluze/1605094757881-samina-berbera-da-guztientzat>